

Izotza egurrean



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Egin du izotzak berea: azioa, txarkeria. Aspaldian ikusi gabeko izotz zuri galantak izan ditugu apirilaren bukaeran. Sator-lana baina agerian, inongo lotsarik gabe: azerikeria. Ikaragarria bota du Euskal Herriaren hegoaldean.


Izotz zuria hauxe da: airean dagoen ura izotzu eta landareen eta lurraren gainean hedatzea. Berez ez da txarra, noiz gertatzen den eta landaredia zein egoeratan harrapatzen duen. Negu gordinan, landareak horretara —hau da, hotzera eta hotzagora— jarrita daudenean gertatzen bada, kalte urriak eragingo ditu. Landareak negua igarotzeko prestatu egin dira, azalak zailduta, zorten eta adarrak izerdiz hustuta eta kimu berriak emango dituzten begiak ezkata sorta batekin babestuta. Hala dio mahatsondoak (*Vitis vinifera*): betor izotza eta garbitu ditzala koko, mamorro eta xomorro. Kalterik egin gabe, mesede galanta egiten baitu izotzak neguan. Beste sagardotegiko upela da aurten gertatu dena. Neguan hotz egin du, baina haren bukaera eta udaberria berotik eta lehorretik doaz. Segida honekin, landareak ziztu bizian mugitu dira, begi-kimuak azkar ireki puja berriak eman eta sasoiari ekiteko. Sasoiari indarrez ekin eta kimuetan loreak irekitzen dira, gero fruituetan burutuko diren loree-

tan. Izotzak begia ireki berri samarra harrapatu eta kimuaren puntta berria erretzen badu, gaitzerdi, baina, deskuidu batez, kimua aurreratu antzera eta loreak irekita harrapatzen badu, jelateak kimu eta lore urteko itxaropen guztia erreko du. Halaxe gertatu da Arabako Errioxan. Hori gutxi balitz bezala, kaltea areagotzen duen eguzkia etorri zen: mahasti puntak izotzez estaliak zirelarik eguzki gordina indar betean azaldu. Horrek bat-bateko aldaketa ekarri zuen hotzetik berora, eta kaltea okertu. Zuhaitz eroria, ezpalkatua.

Orain loraldia ia erabat galduta, mahats gutxi izango da, eta mahatsondoak puja berriak botako ditu alde guztietara. Horrek lanak emango ditu, uztarik izango ez dela jakinda. Mahas-

tizainaren ahalegina, erredurak erredura, mahatsondoan etorkizun ahalik eta oparoena bideratzea da. Ardogilearena, aldiz, non edo han ahalik eta mahats onena aurkitzea.

Udaberri honekin, ziztu bizian doaz gora eta gora upategietan dauden lehen-go urteetako ardoen eta kalterik izan ez duten mahastietako balizko mahatsen prezioak. ■



ESTIBALITZ BESA



endanea
garden

943 64 17 10
www.endanea.com
Jaitzубia 40, Hondarribia

Intsektu laguntzaileak

Zure landare eta barazkiak izurriteez salbu mantentzeko produktu ekologikoetan aukera zabala. Baita onuragarriak diren intsektuez zaintzeko materiala.



